

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

133/2021 Foru Agindua, urriaren 29koa. Hutsen zuzenketa onartzea uztailaren 29ko 112/2021 Foru Aginduan, zeinaren bidez deialdia eta oinarri espezifikoak onartzen diren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa-prozesua zuzendu behar duena administrazio bereziko eskalan, teknikarien azpieskala, erdi mailako teknikarien klasea, gizarte-langilea

Akats bat antzeman da uztailaren 29ko 112/2021 Foru Aginduan, zeinaren bidez deialdia eta oinarri espezifikoak onartzen diren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa-prozesua zuzendu behar duena administrazio bereziko eskalan, teknikarien azpieskala, erdi mailako teknikarien klasea, gizarte-langilea, eta dagokion zuzenketa egin behar da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 109.2 artikuluan, honela dio: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onartzen duen apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuaren 11.b) artikulua xedatutakoarekin bat etorritik,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. II. eranskina zuzentzea, gai espezifikoak, uztailaren 29ko 112/2021 Foru Aginduan, zeinaren bidez deialdia eta oinarri espezifikoak onartzen diren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa-prozesua zuzendu behar duena administrazio bereziko eskalan, teknikarien azpieskala, erdi mailako teknikarien klasea, gizarte-langilea.

Hau dioen tokian:

"43. gaia. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko esparru juridikoa. Haurren babesaren arloko jarduketak inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrekin: 2393/2004 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, haren erregelamendua onartzen duena. (VIII. titulua). Ebazpena, 2014ko urriaren 13koa, Idazkariordetzarena, Lagundu gabeko Adingabe Atzerritarrekin lotutako zenbait jarduketari buruzko Esparru Protokoloa onartzeko Akordioa argitaratzen duena (I., II., VI. eta VII. kapituluak).

Beste hau esan behar du:

"43. gaia. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko esparru juridikoa. Haurren babesaren arloko jarduketak inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrekin: (VIII. titulua). 2/2009 Lege Organikoa, abenduaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa erreformatzen duena (35. artikulua). Ebazpena, 2014ko urriaren 13koa, Idazkariordetzarena, Lagundu gabeko Adingabe Atzerritarrekin lotutako zenbait jarduketari buruzko Esparru Protokoloa onartzeko Akordioa argitaratzen duena (I., II., VI. eta VII. kapituluak).

Bigarrena. Foru Agindu hau argitaratzea ALHAOn eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu publikoaren atarian (<http://www.araba.eus/ifbs/portalempleo/>).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 29a

Gizarte Politiken foru diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ